



Esp. kodea: 2016SAPL0002

Gaia: PLENOA 2016/03/22
Hasiera eguna: 2016/03/15

AKORDIOEN LABURPENA

Udal Plenoak, 2016ko martxoaren 22a egindako bilkuran, erabaki hauek hartu dituela informatzen dut:

1.- AURREKO BILKURAKO AKTA IRAKURRI ETA ONARTZEA.

Udal Plenoak, aho batez, 2016ko otsailaren 2a egindako bileraren akta onartu du.

2.-AIRBUSEKO 8EN ALDE EGITEKO ETA KODE PENALEKO 315.3 ARTIKULUA INDARGABETZEKO MOZIOA, IRABAZI, UDAL TALDEAK AURKEZTUA

Osoko bilkurak, aldeko 13 bozka (EH BILDU; IRABAZI, BALEIKE eta PSE-EE) eta 8 abstentziorekin (EAJ-PNV), onartu du IRABAZI udal taldeak aurkezturiko mozioa.

3.- BALEIKEK AURKEZTUTAKO MOZIOA, ARRASATERAKO GARDENTASUN WEB ORRI BATEN PROPOSAMENAREN INGURUKOA

Osoko bilkurak ez du aurkeztutako mozioa onartu, aldeko 10 bozka (BALEIKE, IRABAZI eta EH BILDU) eta kontrako 11 bozkarekin (EAJ-PNV eta PSE-EE)

4.- BALEIKE UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA, KONTU IREKIEN ETA BANKA ETIKOAREN UDAL ORDENANTZAREN PROIEKTUAREN INGURUKOA

Osoko bilkurak ez du aurkeztutako mozioa onartu, aldeko 3 bozka (BALEIKE eta IRABAZI), kontrako 11 (EAJ-PNV eta PSE-EE) eta 7 abstentziorekin (EH BILDU)

5.- EAJ-PNV UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA, ERRESPECTU FALTA ETA IRAINGARRIAK DIREN PINTAKETA ETA KARTELEN GAINEKO SALAKETAREN INGURUKO MOZIOA.

Osoko bilkurak onartu du aurkeztutako mozioa aldeko 11 bozka (EAJ-PNV eta PSE-EE) eta 10 abstentziorekin (EH BILDU; BALEIKE ETA IRABAZI)

6.- IRABAZI UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA, BIGARREN ERREPUBLIKAREN INGURUKOA.

Osoko bilurak aurkeztutako mozioa onartu du aldeko 10 bozka (IRABAZI; BALEIKE ETA EH BILDU), aurkako 8 (EAJ-PNV) eta 3 abstentziorekin (PSE-EE).

7.-HASIERA BATEAN ONARTZEA "BIDE GARBIKETA ARAUTZEKO ORDENANTZA.

Osoko blkurak aldeko 11 boto (EAJ-PNV eta PSE-EE) eta kontrako 10 bozkarekin (EH BILDU; BALEIKE eta IRABAZI), hasierako onespina eman dio Bide Garbiketa arautzeko ordenantzari. Horretaz gain, jendaurrean egongo da 30 lanegunez, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren hurrengotik hasita, erreklamazioak eta alegazioak aurkeztu ahal izateko, epe honetan.



Esp. kodea: 2016SAPL0002

Gaia: PLENOA 2016/03/22
Hasiera eguna: 2016/03/15

**8.-TOKIKO GOBERNU BATZORDEKO AKORDIOA BERRESTEKO PROPOSAMENA:
“DEBAGOIENEO MANKOMUNITATEA”REN ETA HAREN KIDE DIREN HAINBAT
UDALEN ARTEAN, PROIEKTU BATERATU BAT GARATZEKO, KANPOKO ARGITERIA
PUBLIKOKO INSTALAZIOAK BERRITZEKO, FINANTZATUA ENERGIA DIBERTSIFIKATU
ETA AURREZTEKO INSTITUTUAREKIN HITZARMENA SINATZEKO**

Tokiko Gobernu Batzarrak hartutako akordioa aho batez berretsi du osoko bilkurak

**9.-UDALBATZARRARI JAKINARAZTEA UDALEKO 2015EKO AURREKONTUAREN
LIKIDAZIOAREN ONARPENA.**

Udalbatzarrak 2015eko aurrekontuaren likidazioaren berri hartu du.

**10.-UDALBATZARRARI JAKINARAZTEA ITURBIDE EGOITZAKO 2015EKO
AURREKONTUAREN LIKIDAZIOAREN ONARPENA**

Udalbatzarrak Iturbide Egoitzako 2015eko aurrekontuaren likidazioaren berri hartu du.

**11.-2015 URTEKO EKITALDIKO LIKIDAZIOAREN SOBERAKINAREKIN KREDITUAK
ALDATZEKO ESPEDIENTEA ONTZAT EMATEKO PROPOSAMENA.**

Akordioa onartua geratu da, aldeko 11 boto (EAJ-PNV eta PSE-EE) eta aurkako 10 botorekin (EH BILDU; IRABAZI ETA BALEIKE)

**12.-ARRASATEKO UDALAREN DIRULAGUNTZEN 2016-2019 PLAN ESTRATEGIKOA
ONARTZEKO PROPOSAMENA.**

Osoko bilkurak aho batez onartu du 2016-2019 Diru laguntzen Plan Estrategikoa.

**13.-ARRASATEKO ANTOLAMENDU EGITAMU OROKORRAREN TESTU BATERATUA
BEHIN BETIKOZ ONARTZEKO PROPOSAMENA.**

Osoko bilkurak aho batez onartu du HAPO behin betiko onartzea.

**14.- BERE GARAIAN SINATUTAKO HITZARMENAK DIOENA BETETZEKO, UDALAREN
ESKUETAN GERTU BEHAR DIREN TXAETA KALEA 14-16-18 ZENBAKIETAKO
ERAKINEN LOKALEN LAGAPENA ONTZAT EMATEKO PROPOSAMENA.**

Osoko bilkurak aho batez onartu du Eusko Jaurlaritzak egindako lokalen lagapena.

**15.-ZEHARKALE ESTALIA, 1-2.B-AN KOKATZEN DEN ETXEBIZITZA EROSTEAREN
PROPOSAMENA.**

Osoko bilkurak aho batez onartu du, Udalak Zeharkale Estalia 1-2-Bn kokatzen den etxebizitza erostea, 138.350 euroko prezioan.

**16.-UDALA-BESAIDE IBILBIDEAREN ETA INGURUKO BALIABIDE NATURAL ETA
KULTURALAK HOBETZEKO ETA BERRESKURATZEKO TESTU BATERATUAREN**



Esp. kodea: 2016SAPL0002

Gaia: PLENOA 2016/03/22
Hasiera eguna: 2016/03/15

OBREI DAGOKIEN D (AUZOAN DAGOEN GARBITOKIA ETA ITURRIA EGOKITZEA) ARLOKO LANAK BURUTZEKO BEHARREZKO ONDASUNAK ESKURATZEKO ESPEDIENTEA: ONDASUNEN ZERRENDA BEHIN BETIKOZ ONARTZEN DUEN UDAL BATZARRAREN AKORDIOAREN AURKA LUIS M^a. MURGOITIO JAUNAK AURKEZTUTAKO ERREKURTSOA.

Osoko bilkurak aho batez onartu du L.M.M.A-k aurketutako errekurtsuari ezezko erantzuna ematea.

17.-UDALA-BESAIDE IBILBIDEAREN ETA INGURUKO BALIABIDE NATURAL ETA KULTURALAK HOBETZEKO ETA BERRESKURATZEKO TESTU BATERATUAREN OBREI DAGOKIEN D (AUZOAN DAGOEN GARBITOKIA ETA ITURRIA EGOKITZEA) ARLOKO LANAK BURUTZEKO BEHARREZKO ONDASUNAK ESKURATZEKO ESPEDIENTEA: ONDASUNEN ZERRENDA BEHIN BETIKOZ ONARTZEN DUEN UDAL BATZARRAREN AKORDIOAREN AURKA PILAR ZUBIA ANDREAK AURKEZTUTAKO ERREKURTSOA.

Osoko bilkurak aho batez onartu du P.Z:A:k aurkeztutako errekurtsoa onartzea.

18.-IURRETAKO EMAKUMEEN BIRA ZIKLISMO KIROL ELKARTEAK ANTOLATUTAKO "EMAKUMEEN EUSKAL BIRA" PROBAREN ETAPA BAT 2016, 2017, 2018 ETA 2019 URTEETAN DEBAGOIENEN HERRIETAN EGITEKO LANKIDETZA HITZARMENA SINATZEA MANKOMUNITATEAREN ESKU UZTEA ONTZAT EMATEA

Osoko bilkurak aho batez onartu du Mankomunitatearen esku uztea gai hau, beraien Estatutuen 7. Artikuluaren baitan.

19.-ALKATETZAKO BI EBAZPENEN BERRI EMATEA: NEKAZAL AUZOETAKO ALKATEEN BERRESPENA ETA ITURBIDE EGOITZAKO LEHENDAKARITZAREN DELEGAZIOA.

Osoko bilkurak bi ebazpen hauen berri hartu du.

Arrasaten, 2016ko martxoaren 23a

IDAZKARIA

Amaia Gorrotxategi Zubizarreta